ERDARAZKO GERUNDIOAREN BALIOKIDEAK EUSKARAZ

Euskaraz ez dago gaztelaniaz bezalako gerundiorik edo, beste modu batez esateko, hainbat gerundio mota daude. Batzuk elkarren baliokideak dira, baina nolanahi ere egitura bakoitzak erabilera berezia eskatzen du. Hona hemen egitura nagusiak:

- **-T(Z)EN:** Egitura honek ZERTAN galderari erantzuten dio. Bi ekintza dira, eta biak batera gertatzen dira, baina ez daude elkarrekin erlazionatuta, hau da, ekintza bat egiteko ez da beharrezkoa bestea. "bitartean" egituraren baliokidea da.

  Telebista ikusten ikasten dut euskara.
  Kepa kantatzen etorri da gaur lanera.



- **-(e)Z:** Egitura honek ZEREZ edo NOLA galderari erantzuten dio, eta bitartekoa edo instrumentua adierazten du. Bi ekintza dira, eta biak erlazionatuta daude, hau da, bata egiteko bestea beharrezkoa da. Biak batera edo elkarren ondoren gertatzen dira.

  Telebista ikusiz ikasten dut euskara.
  Ardoa mahatsa zapalduz egiten da.



- **-TA, -RIK:** Egitura honek denbora adierazten du. Bi ekintza dira, baina lehendabizi bata gertatzen da, eta gero bestea. "ondoren" egituraren baliokidea da. Ekintzen artean kausa-ondorio erlazioa egon daiteke, baina bata ez da bestearen instrumentua.

  Gaur egungo telebista ikusita, hobe da libururen bat irakurtzea.
  Giroa ikusita alde egin nuen bileratik.



- **-LA(RIK):** Ekintza batek irauten duen bitartean beste bat gertatzen dela adierazten du. Bi ekintzak ez daude elkarrekin erlazionaturik.

  Telebista ikusten ari nintzela, lagunak bisitan etorri ziren.
  Lanera zihoazela izan zuen istripua.